



EUSKARAREN EGUNA 2019/12/03 (19:00, Pleno Aretoa)

UDALBATZAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA- EUSKARAREN ORDENANTZA

Euskal Herriko herritar guztiak dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz. Eibarko Udalari dagokio eskubide horiek betetzen direla bermatzea.

Egungo udalbatzak berretsi egiten du aurreko udalbatzak, agintaldi bukaeran, aho batez onartutako Euskararen ordenantza.

Horiek horrela, nola jokatu du Udalak herritarrokin?

ALKATEA

Euskara izango da lehen hitza bai telefonoz, bai aurrez aurreko harreran.

Udalak eta haren menpeko edozein erakundek herritarroei bidaltzen dizkizuen komunikazio, ziurtagiri, gutun eta jakinarazpen idatzi guztiak hizkuntza ofizial bietan idatzita egongo dira.

PSE-EE (PSOE)

Udaleko edozein bileratan euskaraz jarduteko eskubidea aitortzen zaizue herritarroei. Hori horrela, herritarrok bileretan euskaraz egiteko eskubidea duzuela adieraziko dugu udal langileek eta zinegotziok.

Eibarko Udaleko ordezkari politikook euskaraz eta gaztelaniaz hitz egingo dugu ekitaldi publikoetan, Udalaren izenean ari garenean.

Ekintza eta entzule motagatik, gaztelaniaren erabilera nagusi den jardueretan eta bileretan euskararen erabilera bermatuko dugu sarreran, aurkezpenean eta laburpenetan.

Herritar multzo euskaldunarentzako jarduerak euskaraz izango dira.

EIBARKO EAJ-PNV

Prensa-oharrak ele bietan egingo ditugu.

Udalaren webgunea ele bietan egongo da.

Aldizkari, gida eta berripaperak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira. Gaiaren eta hartzailearen arabera, beste aukera batzuk aztertuko ditugu, betiere hizkuntza bien erabileraren arteko oreka mantenduta. Hala dagokionean, beste hizkuntza batzuk erabili ahal izango dira.

EH BILDU

Ediktuak, ordenantzak, erregelamenduak eta beste edozein motatako erabakiak ele bietan argitaratuko dira.

Herritarrentzako iragarkiak, diptikoak eta argitalpenak ele bietan argitaratuko ditu Udalak.

Herritar multzo euskaldunarentzako argitalpenak euskaraz izango dira.

ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS/EZKER ANITZA-IU/EQUO BERDEAK



Horiek, Udal honek hartzen dituen konpromisoak. Gutako bakoitzaren konpromisoa txapa honek erakusten du (ahobizi / belarriprest / bihotzgoxo). (Paparreko txapa seinalatuko dute guztiek)

Eibar euskaldunagoa dugu gogoan, Eibar hobea dugu gogoan.

Lortuko al dugu?

ALKATEA

JAKINA!

PSE-EE (PSOE)

KLARO, BA!

EIBARKO EAJ-PNV

BAI, HORIXE!

EH BILDU

NOSKI!

ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS/EZKER ANITZA-IU/EQUO BERDEAK

ERREGULAR!!!!!!!

UDALBATZA OSOA BATERA